

**Lankidetza hitzarmena berritu dute**

**ONCE EUSKADIK ETA EROSKI-K LUZATU EGIN DUTE IKUSMEN  
DESGAITASUNA DUTENAK GIZARATERATZEKO DUTEN LANKIDETZA**

**Bilbo, 2024ko ekainaren 28a.-** [EROSKI](#)k eta EAeko [ONCE](#)k berriz izenpetu dute lankidetza hitzamen bat, itsuak edo ikusmen desgaitasuna dutenak babesten jarraitzeko. Hitzarmen hori sinatzeko, elkartu dira Usue Vallejo Delcan ONCEk EAEn duen lurralde ordezkaria eta Alejandro Martinez Berriochoa EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendaria. Hala, bi erakundeek berretsi egin dute kolektibo hori gizarteratzeko eta autonomia indartzeko konpromisoa.

Hitzarmenaren helburu nagusia da ONCEk EAEn dituen afiliatuei jarduera kulturalak eta aisialdikoak eskura jartzea, gizartean guztiz barneratzen laguntzeko. Jarduerak dira tailerrak, hitzaldiak eta beste ekimen batzuk, partaideei autonomia pertsonalerako behar diren tresnak emango dizkietenak.

EAeko ONCEko Usue Vallejo Delcanek adierazi du pozik dagoela, "EROSKIren lankidetza irmoa eta hurbilekoa delako eta gizarteratzea sustatzeko orduan aliatu giltzarria delako. Hitzarmenak aukera ematen digu elkarrekin gizarte bidezkoagoak eraikitzeko, non denak bizi ahalko diren duintasunez eta berdintasunez".

Alejandro Martinez Berriochoak, berriz, hauxe gogorarazi du: "EROSKI sortu zenetik lantzen ditu askotariko gizarte ekimenak, eta lerrokatuta dago gure balio korporatiboekin; hala era efektiboan laguntzen aritzen gara gizarte zuzenago eta elkartasun handiagoko baten alde. ONCE Euskadirekin egindako hitzarmen honen bidez, gizarte bazterketa jasateko arriskuan direnak eta jende behartsua integratzen laguntzeko borondatea indartu dugu, eta gizarte erantzukizunarekin eta dibertsitatearekin konprometituta gaudela berretsi dugu.

Hitzarmen berriaren barruan, era berean, EROSKI ekarpen ekonomiko bat egingo dio ONCEri, aipaturiko jarduerak finantzatzeko. Bi erakundeek lankidetzak arlo bat baino gehiago hartzen ditu, hala nola laneratzea, prestakuntza eta teknologia berriak eskuragarri jartzea eta irisgarritasun unibertsala.

Bi aldeek borondatea erakutsi dute elkarrekin lan egiten jarraitzeko eta hala ikusmen desgaitasuna dutenen bizi kalitatea hobetu eta gizartean guztiz barneratzen laguntzeko.

*Informazioa:*

<b>ONCE Euskadi</b> IÑIGO ARBIZA GALDOS Prensa bulegoa   Euskadiko Lurralde Ordezkaritza <a href="mailto:iaga@once.es">iaga@once.es</a> Tel: 620.102.012	<b>EROSKI Komunikazio Korporatiboa</b> PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN Tel.: 946 211 214 <a href="mailto:comunicacion@eroski.es">comunicacion@eroski.es</a> Online prentsa aretoa PRENTSA BULEGOA – CONSEJEROS DEL NORTE JOANA G. LANDAZABAL / EDURNE IZQUIERDO Tel: 944 158 642
--	---